

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak urtearen amaieran %1,5eko defizitaren helburua betetzeko aurreikuspenari eusten dio

Kontabilitate nazionalako datuen arabera, Nafarroa % 2,4an kokatu zen urteko hirugarren hiruhilekoan

Martes, 04 de diciembre de 2012

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak berretsi egin du gaur Nafarroako Gobernuak urte amaieran % 1,5eko defizitaren helburua betetzeko ahalegin guztiak egiten ari dela, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministroak gaur aurkeztu dituen Autonomia Erkidegoen 2012ko hirugarren hiruhileko aurrekontuen exekuzio-datuak ezagutu ondoren.

Ministeriotik azaldu dutenez, Foru Komunitatearen sistema fiskalak dituen bereizgarrien eta Nafarroak berezko dituen diru-sarreraren, gastuen eta itzulketen egutegiaren ondorioz, gainerako autonomia-erkidegoekiko konparaketa homogeneoa ez izatea eta urte amaiera hurbildu ahala desberdin aldatzea eragiten dute. Goicoecheak gogora ekarri du urtean zehar datuak izandako bilakaera jakitea garrantzitsua dela joera ezagutzeko, baina hiruhileko bakoitzeko emaitzek ez dutela adierazten aurrekontuaren saldoren portaera urte amaierako kontabilitate nazionalari dagokionez. Ildo horretan adierazi du gaur ezagututako datua Nafarroako Gobernuak hirugarren hiruhileko honetarako dituen aurreikuspenetara hurbiltzen dela eta urtea ixtean % 1,5eko defizitaren helburua betetzea aurreikusten jarraitzen dutela.

Gainera, kontseilariak esan du ona dela Ministerioak joan den irailean Nafarroak egindako eskaera aintzat hartzea eta, hala, Foru



Lourdes Goicoechea, lehen lehendakariordea eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria.

Komunitatearen datuak desberdin azaldu eta tratatzea eta, horrekin batera, Nafarroa defizitaren helburua betetzeko bidean dela argitzea.